# Iragarpenak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Gurutzetako Ospitalean, edariak eta produktu solidoak makina automatikoen bidez banatzeko zerbitzua kontratatzeko dena. 12929

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetzarena, Vitoria-Gasteizko Txagorritxuko Ospitaleko hainbat zerbitzu ekipamenduz hornitzeko kontratua egiteko dena. 12931

### GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

IRAGARPENA, «Compañía de Maderas, S.A.» enpresaren izenean Bermeoko Portuan administrazio emakida eskatzeari buruzkoa. 12933

IRAGARPENA, «Repsol Comercial de Productos Petrolíferos, SA» enpresaren izenean Hondarribiko portuan administrazio emakida eskatzeari buruzkoa. 12933

### MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarpena, PIE-PIPE 2000 delakoari laguntzeko unitate gisa, kanpoko aholkularitza teknikorako kontratua esleitzeko dena. (Esp.: CCT 13/24/98). 12934

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

CONCURSO PÚBLICO para la Contratación del servicio de distribución de bebidas y productos sólidos por medio de máquinas automáticas expendedoras en el Hospital de Cruces. 12929

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para la contratación del suministro de equipamiento para diferentes servicios del Hospital Txagorritxu de Vitoria-Gasteiz. 12931

### DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

ANUNCIO de la solicitud de concesión administrativa en el puerto de Bermeo por parte de la Compañía de Maderas S.A. 12933

ANUNCIO de la solicitud de concesión administrativa en el puerto de Hondarribia por parte de «Repsol Comercial de Productos Petrolíferos, S.A. 12933

### DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

CONCURSO PÚBLICO. Anuncio para la adjudicación del contrato que tiene por objeto la asesoría técnicaexterna como unidad de apoyo del PIE-PIPE 2000 (Expte. C.C.T. n.º 13/24/98). 12934

# Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-3171

16/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, arrantzaleen kofradiei buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

# Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-3171

LEY 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

## EKAINAREN 25EKO 16/1998 LEGEA, ARRANTZALEEN KOFRADIEI BURUZKOA

### ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko arrantzaleen kofradiak gremioen garaitik datozen erakundeak dira. Kofradiek, bestetik, mendeetan zehar mantendu dituzte oinarrizko antolamendu egiturak, eta eragin handia izan dute euskal kostaldeko hainbat tokitako bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean.

Erakunde hauek ondo asko jakin dute sortuz joan diren gizarte prozesu aldakorretara egokitzen; erakundeok, baina, jarduketa modu berrietara egokitu behar dira, Europako Erkidegoaren marko berrian eta arrantza produktuen merkatu irekiago eta lehiakorragoen testuinguruan jardungo badute.

Hala ere, beharrezkoa da, testuinguru berri honetan, aspaldiko gremioek defendaturiko eduki sozialari eta garapen ekonomiko zein sozialari eustea. Eta, aldi berean, horrek ez du esan nahi zirkunstantzia berriek gomendatzen ez dutenik zeregin berriei ekitea, kofradiek modua izan dezaten beste erakunde batzuekiko elkartze prozesuak eta prozesu komertzialak bultzatzeko; izan ere, horrela jokatuta, bermeak jarriko dira arrantzako produktuen eraldaketa eta merkaturatze prozesuetan partaidetza handiagoa lortzeko, eta produktu horien merkatuetan eragin handiagoa izateko.

Bestalde, korporazio hauek arautzeko lege eta estatutu izaerako arauen urritasunaren ondorioz sortutako egiturazko arazo batzuk desagertaraztea da lege honen helburuetako bat, kofradien jardunerako baliozkotzat hartu diren kontzeptuak baztertu gabe.

Horrengatik guztiagatik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.21 atalak ezarritakoaren ondorioz -eskumen esklusiboa ematen baitio Autonomia Erkidegoari arrantzaleen kofradien alorrean-, lege hau egin da, lege marko egokia eratzeko xedeaz. Izan ere, marko horretan zehaztuko dira kofradiek herri administrazioekiko harremanetan izan behar duten lankidetza eta partaidetza, eta bazkideen interes orokorrak defendatzeko eta bazkideei aholkuak emateko modua.

### I. ATALBURUA
### IZAERA, EGINKIZUNAK ETA LURRALDE EREMUA

*1. atala.–* Izaera.

Arrantzaleen kofradiak Zuzenbide publikoko korporazioak dira, nortasun juridikoa dutenak, eta -beren xedeak betetzeko- jarduteko gaitasuna dutenak. Kofradiak legez eratzen dira, arrantza sektoreak parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko modua eduki dezan herri administrazioekiko harremanetan, zertarako eta arrantzaren, itsaski bilketaren eta akuikulturaren interes orokorra defendatzeko eta arrantzako produktuen antolamendu eta merkaturatze egokia defendatzeko.

## LEY 16/1998, DE 25 DE JUNIO, DE COFRADÍAS DE PESCADORES

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las cofradías de pescadores del País Vasco son entidades que desde un pasado institucional gremial, y manteniendo a lo largo de los siglos sus estructuras organizativas básicas, han ejercido una gran influencia en la vida política, económica y social de diversas comunidades costeras vascas.

Estas entidades, que han sabido adaptarse a los cambiantes procesos sociales que se han ido generando, necesitan adecuarse a las nuevas formas de actuación en el nuevo contexto del marco comunitario y de los mercados de productos pesqueros mucho más abiertos y competitivos.

Es necesario, no obstante, mantener en este nuevo contexto el mismo carácter de contenido social y de desarrollo económico y social que propugnaban los antiguos gremios, sin perjuicio de que las nuevas circunstancias aconsejen el establecimiento de unos nuevos cometidos para que las cofradías puedan impulsar procesos asociativos y comerciales con otras entidades con el fin de garantizar una mayor participación en los procesos de transformación y comercialización de los productos pesqueros y una mayor influencia en los mercados de los mismos.

Esta ley persigue, a su vez, eliminar algunos problemas estructurales que se habían originado debido a la insuficiencia de las normas legales y estatutarias que regulan estas corporaciones, sin perjuicio de seguir manteniendo los conceptos que se han considerado válidos en el desarrollo actual de estas instituciones.

Por ello, en virtud de lo establecido en el artículo 10.21 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de cofradías de pescadores, se establece la presente ley, que trata de fijar el marco legal idóneo donde se determina el carácter participativo y colaborador de estas entidades con las Administraciones públicas y el carácter de asesoramiento y defensa de los intereses generales de sus asociados.

### CAPÍTULO I
### NATURALEZA, FUNCIONES Y ÁMBITO TERRITORIAL

*Artículo 1.–* Naturaleza.

Las cofradías de pescadores son corporaciones de Derecho público dotadas de personalidad jurídica y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, que se instituyen legalmente como cauce participativo y colaborador del sector pesquero con las Administraciones públicas en defensa del interés general de la pesca, el marisqueo y la acuicultura, y de la organización y comercialización de sus productos.

*2. atala.–* Aplikatzeko arauak.

1.– Eukal Herriko arrantzaleen kofradiak ondoko hauen arabera eraenduko dira: lege honen, bera garatzeko arauen eta berek libreki xedatzen dituzten estatutuen arabera.

2.– Kofradiek autonomia izango dute beren interes eta baliabide propioak kudeatzeko, eta kofradien jarduna Zuzenbide pribatuaren menpean egongo da. Hori guztia gorabehera, Zuzenbide publikoak arautuko ditu kofradien eraketa, antolamendu eta hauteskunde prozedurarekin zerikusia duten egintzak, baita Zuzenbide publikoko korporazioa izatearen ondorioz egiten diren egintza administratiboak ere. Egintza horien aurka, errekurtso arrunta jarri ahal izango zaio arrantza arloan eskuduna den Sailari, eta errekurtso horrek administrazio bidea agortuko du.

3.– Arrantza arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako Sailaren babesaren pean egongo dira kofradiak.

*3. atala.–* Estatutuak.

Kofradien estatutuak biltzar orokorreko kideen gehiengo absolutuaz onetsi behar dira. Estatutuek, gutxienez, ondoko kontu hauek arautu behar dituzte:

a) Izena.

b) Lurralde eremua.

c) Egoitza.

d) Kideen eskubide eta betebeharrak, eta zehapen araubidea.

e) Artezkaritza organoen osaera, araubidea eta eskurantzak.

f) Hauteskunde araubidea, lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan beren-beregi arautzen ez den guztian.

g) Baliabideak eta ekonomi araubidea.

h) Ondarea.

i) Desegiteko arrazoiak eta ondareari eman beharreko erabilera, eta normaltasunez jarduteko behar diren gainerako kontu guztiak.

*4. atala.–* Eginkizunak.

Arrantzaleen kofradien eginkizunak hauek dira:

a) Herri administrazioekiko elkarlanerako eta kontsultarako erakunde izatea, hala arrantza jardunari nola arrantza, itsaski bilketa eta akuikulturako produktuak merkaturatzeari dagokienez.

b) Bazkideek arrantza eta merkaturatze jardueretan dituzten interes orokorrak defendatzea.

c) Kofradiako kideei informazioa eta orientazioa ematea, hala lege arauei buruz nola herri administrazioek arrantza arloan hartzen dituzten neurri egiturazko edo sozioekonomikoei buruz.

d) Arrantzako produktuak antolatu eta merkaturatzeko sistemak ezartzea, lege arauekin bat etorriz, eta

*Artículo 2.–* Normas de aplicación.

1.– Las cofradías de pescadores del País Vasco se regirán por la presente ley, por las normas que la desarrollen y por los estatutos que libremente se otorguen.

2.– Están dotadas de autonomía para la gestión de sus intereses y recursos propios y su actuación estará sometida al tráfico privado, sin perjuicio de la regulación por el Derecho público de los actos que conciernen a su constitución, organización y procedimiento electoral, así como aquellos otros realizados en virtud de su carácter de corporación de Derecho público que tengan la consideración de administrativos. Estos actos serán susceptibles de recurso ordinario ante el Departamento competente en materia de pesca, que pondrá fin a la vía administrativa.

3.– Estarán bajo la tutela del Departamento competente en materia de pesca del Gobierno Vasco.

*Artículo 3.–* Estatutos.

Los estatutos de la cofradía serán aprobados por mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General y deberán regular, al menos, los siguientes aspectos:

a) La denominación.

b) El ámbito territorial.

c) El domicilio.

d) Los derechos y obligaciones de sus miembros y su régimen disciplinario.

e) Composición, régimen y atribuciones de los órganos rectores.

f) El régimen electoral, en lo no regulado expresamente por esta ley y en las disposiciones de desarrollo de la misma.

g) Los recursos y el régimen económico.

h) El patrimonio.

i) Las causas de disolución y el destino del patrimonio, y cuantos resulten necesarios para su normal funcionamiento.

*Artículo 4.–* Funciones.

Son funciones de las cofradías de pescadores:

a) Actuar como entidades de consulta y colaboración con las Administraciones públicas en el ámbito general de la actividad y de la comercialización de los productos de la pesca, el marisqueo y la acuicultura.

b) La defensa de los intereses generales de los asociados en su actividad pesquera y comercializadora.

c) Informar y orientar a sus miembros de las normas legales y de las medidas de carácter estructural o socioeconómico que adopten las Administraciones públicas en el ámbito de la pesca.

d) Establecer los sistemas organizativos y de comercialización de sus productos pesqueros de acuerdo con

ekoizpenaren bolumena merkatuaren eskakizunetara egokitzea.

e) Lege xedapenei, neurri egiturazko eta sozioekonomikoei, jarduera planei eta arrantzako produktuen merkatua arautu eta antolatzeari buruzko txostena eta proposamenak egitea eta Administrazioari igortzea.

f) Finantza erakundeekiko akordioak sustatzea, arrantza jardunaren garapenean finantza tresnak ahalik eta ondoen erabil daitezen.

g) Elkartze prozesuak bultzatzea eta lankidetza komertzialerako hitzarmenak edo lanbidearteko akordioak formalizatzea beste erakunde eta enpresa batzuekin, arrantzaren eraginkortasun eta errentagarritasuna lortzeko eta baita arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko prozesuetan parte handiagoa izateko ere.

h) Herri administrazioekiko hitzarmenak formalizatzea, merkatuak identifikatzeko kanpainak eta Euskal Herriko arrantza produktuen zabalkunde eta sustapenerako kanpainak egiteko.

i) Kideei zuzendutako prestakuntza jarduerak, jolas eta kultur jarduerak eta jarduera sozialak sustatu eta garatzea.

j) Herri administrazioek -arrantza profesionalean eragina duten gaietan- eskuordeturiko eginkizunak betetzea, zeinek bere lurralde eremuaren barruan.

k) Kofradien beren ondasun eta eskubideak eta edozein tituluren bidez eskuratzen dituztenak kudeatu eta administratzea.

l) Arrainak harrapatu eta kontserbatzeko prozesua teknifikatzera eta kalitate oneko arrantza-produktuak aurkeztu, normalizatu eta merkaturatzera jotzen duten neurriak bultzatzea.

m) Arrantzako produktuak legez ezarritzako arauekin bat etorriz lehorreratu eta saltzeko behar diren neurriak hartzea.

n) Harrapatu eta saldutako kopuruei buruzko estatistikak egin eta aurkeztea, arrantza arloan eskuduna den Sailaren jarraibideen arabera.

ñ) Bazkideek -banan-banan edo taldeka- arrantza baliabiderik kofradien esku utziz gero, baliabide horiek kudeatzea.

o) Estatutuek edo antolamendu juridikoak esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak.

*5. atala.–* Lurralde eremua.

1.– Arrantzaleen kofradiek Euskal Herriko lurralde eremuaren barruan jardungo dute; horrek ez du baztertzen, baina, lurralde eremu horretatik kanpo jarduteko aukera, hala arrantzaren, itsaski bilketaren eta akuikulturaren arautzea eta antolamendua nola jarduera horien produktuak merkaturatzeko prozesuena defendatzeko.

las normas legales, y adaptar el volumen de producción a las exigencias del mercado.

e) Emitir y elevar informes y propuestas a la Administración sobre las disposiciones legales, las medidas estructurales y socioeconómicas, los planes de actividad y la regulación y ordenación del mercado de los productos pesqueros.

f) Promover acuerdos con las instituciones financieras con el fin de obtener la mejor utilización de los instrumentos financieros en el desarrollo de la actividad pesquera.

g) Impulsar procesos asociativos y formalizar convenios de colaboración comercial o formalizar acuerdos interprofesionales con otras organizaciones y empresas con el fin de conseguir eficacia y rentabilidad en la actividad pesquera y una mayor participación en los procesos de transformación y comercialización de los productos pesqueros.

h) Formalizar convenios con las Administraciones públicas con el fin de realizar campañas de identificación de mercados y de propaganda y promoción de los productos pesqueros del País Vasco.

i) Promover y desarrollar actividades formativas, recreativas, culturales y sociales para sus miembros.

j) Ejercer en su ámbito territorial las funciones que les sean delegadas por las Administraciones públicas en materias que afecten al sector pesquero profesional.

k) La gestión y administración de sus bienes y derechos y de los que adquieran por cualquier título.

l) Impulsar la adopción de medidas tendentes a tecnificar el proceso extractivo y de conservación y a la presentación, normalización y comercialización de productos pesqueros y de calidad.

m) Adoptar las medidas necesarias para que se realice el desembarco y venta de los productos pesqueros de acuerdo con las normas legales establecidas.

n) Confeccionar y presentar las estadísticas de capturas y ventas de acuerdo con las instrucciones del Departamento competente en materia de pesca.

ñ) La gestión de los recursos pesqueros que individual o colectivamente puedan poner a su disposición los asociados.

o) Todas aquellas funciones que vengan atribuidas por sus estatutos o por el ordenamiento jurídico.

*Artículo 5.–* Ámbito territorial.

1.– Las cofradías de pescadores actuarán en el ámbito territorial del País Vasco, sin perjuicio de las actividades que en un ámbito superior puedan desarrollar en defensa de la regulación y ordenación de la pesca, marisqueo y acuicultura y de los procesos de comercialización de estos productos.

2.– Kofradia jakin bati atxikitako ontzien egoitza portua dagoen udalerriaren muga geografikoek zehazten dute delako kofradia horren lurralde eremua. Hala ere, kofradia jakin batek beste lurralde eremu zabalago batean ere jardun dezake, egoitza portua eremu horretako udalerrietan duten ontzien jabeen gehiengo absolutuaketa ontzi horietako lan-kontratupeko langileen gehiengo absolutuek hala erabaki badezate.

3.– Kofradia bakoitzaren lurralde eremua kofradiaren beraren estatutuetan zehaztuko da; edonola ere, ez da posible kofradia bik batera eremu berean jardutea.

II. ATALBURUA
KOFRADIEN ERAKETA ETA ANTOLAMENDUA

1. SEKZIOA
ERAKETA

*6. atala.–* Osaera.

1.– Egoitza portua kofradiaren lurralde eremuan duten ontzien jabeek eta haien menpean dauden lan-kontratupeko langileek osatuko dituzte arrantzaleen kofradiak, baldin eta jarduera profesionaltzat badute arrantza.

2.– Horrez gain, jardun profesionalaren azken bost urteetan kofradietako kideak izan diren eta erabateko elbarritasun egoeran edo jubilaturik dauden pertsonak kofradietako kide izan daitezke, bazkide laguntzaile gisa, hitza bai baina botorik ez dutela.

*7. atala.–* Nola lortzen den kofradia bateko kide izatea.

Kofradia bateko kidea izateko, eskabidea egin behar da, eta, gainera, zuzendaritza batzordeak, korporazioaren estatutuetan ezarritako eskakizunak aztertu ondoren, kide berria onartzearen aldeko erabakia hartu behar du.

*8. atala.–* Nola uzten zaion kofradia bateko kide izateari.

Jarduera profesionalari utziz gero, hilez gero, baja borondatez hartuz gero edota zuzendaritza batzordeak kanporatze espendientea hastea erabaki eta biltzar orokorrak erabaki hori berretsiz gero utziko zaio kofradiako kidea izateari.

*9. atala.–* Kofradia bateko kide izateari eusteaz.

1.– Aurrekoa gorabehera, aldi batez langabezian egonagatik, epe hori urtebetetik gorakoa ez bada, kide izaerari eutsiko zaio, eta berdin gertatuko da aldi baterako ezintasun egoeran edo ezintasun iraunkorrean egonagatik, baldin eta arrantzatze lanetik kanpoko lan ordaindurik egiten ez bada.

2.– Halaber, bateraezintasun araubideak kontrakoa xedatu ezik, ez dute kide izaera galduko herri ordezkaritzako karguren bat betetzen ari direnek edota kofra-

2.– El ámbito territorial de cada cofradía será el determinado por los límites geográficos del término municipal en que esté ubicado el puerto base de los buques adscritos a la misma. No obstante, una cofradía podrá abarcar diversos ámbitos territoriales si así se acordara por la mayoría absoluta, respectivamente, de los armadores y del personal laboral de los buques con puertos base en los distintos municipios costeros.

3.– El ámbito territorial de cada cofradía será el que determine su propio estatuto, sin que puedan coincidir dos cofradías en el mismo ámbito.

CAPÍTULO II
CONSTITUCIÓN Y ORGANIZACIÓN DE LAS COFRADÍAS

SECCIÓN 1.ª
CONSTITUCIÓN

*Artículo 6.–* Composición.

1.– Las cofradías de pescadores estarán constituidas por los armadores y por el personal laboral dependiente de los mismos que ejerzan la actividad pesquera, como actividad profesional, embarcados en los buques de pesca con puerto base en el ámbito territorial de la cofradía.

2.– Igualmente podrán formar parte de las cofradías, como socios colaboradores con voz pero sin voto, las personas que hayan pertenecido a las mismas durante los últimos cinco años de su actividad profesional y se hallen en situación de invalidez absoluta o jubilación.

*Artículo 7.–* Adquisición de la condición de miembro de una cofradía.

La condición de miembro de una cofradía se adquiere por la solicitud de inclusión y el acuerdo favorable de la Junta Directiva, previo examen de los requisitos establecidos en los estatutos de la corporación.

*Artículo 8.–* Pérdida de la condición de miembro de una cofradía.

La pérdida de la condición de miembro de una cofradía se produce por cese en la actividad profesional, fallecimiento, baja voluntaria de la misma o expediente de separación acordado por la Junta Directiva y ratificado por la Asamblea General.

*Artículo 9.–* Mantenimiento de la condición de miembro de una cofradía.

1.– No obstante lo anterior, la condición de miembro permanece en el período de inactividad por desempleo temporal no superior a un año y en la situación de incapacidad temporal o permanente, siempre que en esta última situación no se desempeñen trabajos retribuidos fuera del ámbito del sector pesquero extractivo.

2.– A su vez, y siempre que su régimen de incompatibilidades no establezca lo contrario, no perderán la condición de miembros las personas que desempeñen

dia edo federazioko lehendakari edo lehendakariorde eginkizunak betetzen ari direnek.

*10. atala.–* Eraketarako eskakizunak.

1.– Kofradia berri bat eratu ahal izateko, beharrezkoa da egoitza portua kofradia berriaren lurralde eremuan duten ontziekin arrantzan diharduten ontzi-jabeek eta haien menpeko lan-kontratupeko langileek gehiengo absolutuaz hala erabaki dezaten. Beharrezkoa da, halaber, lurraldeko kofradien federazioak aldez aurretik txostena egin dezan, nahiz eta txosten hori loteslea izango ez den.

2.– Sustatzaileek osatutako biltzar eratzaileak kofradiaren estatutuak onetsiko ditu eta kofradia eratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu.

3.– Sustatzaileek kofradia bateko kideei exigitzen zaizkien eskakizunak bete behar dituzte, eta lehendakaria eta zuzendaritza batzordea aukeratuko dituzte beren artetik.

4.– Biltzarraren aktak, gutxienez, ondoko kontu hauek jaso behar ditu: bileraren tokia eta data; bilerara azaltzen direnen zerrenda, sektoreka adierazita; deliberazioen laburpena; botazioaren emaitza, eta hartutako erabakiak.

5.– Biltzarreko idazkariaren eginkizunak behin-behingoz betetzen dituen sustatzaileak luzatuko du aktaren ziurtapena, biltzarreko lehendakariaren oniritziarekin.

*11. atala.–* Aldaketa eta bat-egitea.

Euskal Herriko kofradien lurralde eremua aldatu ahal izateko, eta kofradia batzuek bat egin ahal izateko beharrezkoa da kofradia bakoitzaren biltzar orokorreko kideen gehiengo absolutuak hala erabaki dezan.

*12. atala.–* Lankidetzarako akordioak.

1.– Euskal Herriko arrantzaleen kofradiek zerbitzu komunen kudeaketari edo interes orokorren defentsari buruzko akordioak itundu ahal izango dituzte beren artean, eta horrek ez du esan nahi kofradia horiek bat egin behar dutenik.

2.– Lankidetzarako akordio horiek kofradia bakoitzaren biltzarreko kideen gehiengo soilaz itunduko dira.

*13. atala.–* Desegitea.

Arrantzaleen kofradia bat desegiteko, biltzar orokorraren aparteko bilkura egin behar da, eta biltzarkideen bi herenen adostasuna lortu behar da.

*14. atala.–* Ezabatzea.

Arrantza arloan eskuduna den Sailak arrantzaleen edozein kofradia ezabatu ahal izango du, delako kofradia horrek legez esleitu zaizkion xedeak betetzeari uzten badio. Horretarako, aldez aurretik prozedura ego-

un mandato de representación popular o estén ejerciendo las funciones de Presidente o Vicepresidente de la cofradía o federación.

*Artículo 10.–* Requisitos de constitución.

1.– La constitución de una nueva cofradía requerirá los acuerdos de la mayoría absoluta de los armadores y del personal laboral dependiente que desarrollen la actividad en los buques con puerto base en el ámbito territorial de la cofradía a constituir, así como el informe previo, no vinculante, de la federación de cofradías del territorio.

2.– La asamblea constituyente integrada por los promotores aprobará los estatutos de la cofradía y adoptará los acuerdos que sean necesarios para la constitución de la misma.

3.– Los promotores, que deberán reunir los requisitos exigidos a los miembros de una cofradía, elegirán entre ellos al Presidente y a la Junta Directiva.

4.– El acta de la asamblea deberá expresar, al menos, el lugar y fecha de la reunión, la lista de asistentes por sectores, un resumen de las deliberaciones, el resultado de la votación y los acuerdos adoptados.

5.– La certificación del acta será expedida por el promotor que ejerza provisionalmente las funciones de Secretario de la asamblea, con el visto bueno del Presidente de la misma.

*Artículo 11.–* Modificación y fusión.

La modificación del ámbito territorial y la fusión de varias cofradías del País Vasco requerirá el acuerdo por mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General de cada cofradía.

*Artículo 12.–* Acuerdos de colaboración.

1.– Las cofradías de pescadores del País Vasco podrán acordar entre sí la gestión de los servicios comunes o la defensa de sus intereses generales, sin que ello implique una fusión de las mismas.

2.– Dicho acuerdo de colaboración se adoptará por mayoría simple de los miembros de la Asamblea de cada cofradía.

*Artículo 13.–* Disolución.

La disolución de una cofradía de pescadores requerirá una convocatoria extraordinaria y el acuerdo de los dos tercios de los miembros de la Asamblea General.

*Artículo 14.–* Supresión.

El Departamento competente en materia de pesca, previa instrucción de un procedimiento con audiencia de la interesada y oída la federación de cofradías del territorio, podrá proceder a la supresión de una cofradía

kia instruitu behar du, eta prozedura horren baitan interesaturiko kofradiari eta lurraldeko kofradien federazioari entzun behar die.

2. SEKZIOA
ANTOLAMENDUA

*15. atala.–* Artezkaritza organoak.

Arrantzaleen kofradien artezkaritza organoak biltzar orokorra, zuzendaritza batzordea eta lehendakaria dira.

*16. atala.–* Agintaldiaren iraupena.

Artezkaritza organoak lau urteko eperako aukeratuko dira. Hala ere, organo horietako kideen agintaldia arinago amaitu ahal izango da baten bat kargutik kenduz gero, edo baten batek kargua utzi edo kide izaera galduz gero, edota kofradiaren bat-egite, desegite edo ezabatzea suertatuz gero.

*17. atala.–* Biltzar orokorra.

1.– Kide guztien ordezkaritza organo nagusia eta gainerako artezkaritza organoen kontrolerako organo nagusia da.

2.– Ontzi-jabeen eta haien menpeko lan-kontratupeko langileen ordezkariek osatuko dute, sektore bien ordezkaritza parekidearen irizpidearen arabera. Hala ere, kofradiaren biltzar orokorra kofradiako kide guztiek osaturik egon daiteke, estatutuek horrela xedatuz gero; edonola ere, botoa emateko, parekidea izango da sektore bien ordezkaritza.

3.– Bazkide laguntzaileak biltzar orokorrera joan ahal izango dira estatutuetan ezarritakoaren arabera.

*18. atala.–* Biltzar orokorraren eskumenak.

Biltzar orokorrari eginkizun hauek dagozkio:

a) Kofradien estatutuak onestea.

b) Biltzarkideen artetik zuzendaritza batzordea, lehendakaria, lehendakariordea eta ordezkoak aukeratzea. Horiek guztiak izendatzea eta kargutik kentzea.

c) Sarrera eta gastuen aurrekontuak onestea eta langileak kontratatzeko irizpideak finkatzea.

d) Kuotak edo derramak onestea.

e) Aurrekontu ekitaldiko balantzea eta finantza orriak edo ustiapen kontuak onestea.

f) Ondasun higiezinez baliatzeko egintzak eta lankidetzarako akordioak onestea.

g) Arrantzale kofradien eta beren lurralde eremuen aldaketa, desegitea eta bat-egitea onestea.

h) Kofradiek, beren kabuz edo federazioen bidez, beste enpresa batzuetan edo lurraldeko, Estatuko, Eu-

de pescadores cuando dejara de cumplir los fines que tiene legalmente encomendados.

SECCIÓN 2.ª
ORGANIZACIÓN

*Artículo 15.–* Órganos rectores.

Son órganos rectores de las cofradías de pescadores la Asamblea General, la Junta Directiva y el Presidente.

*Artículo 16.–* Duración del mandato.

Los órganos rectores serán elegidos por un período de cuatro años, sin perjuicio de la finalización anticipada de su mandato en los supuestos de cese, dimisión, pérdida de la condición de miembros, fusión, disolución o supresión de la cofradía.

*Artículo 17.–* La Asamblea General.

1.– Es el órgano superior de representación de todos los miembros y de control de los demás órganos rectores.

2.– Estará constituida por los representantes de los armadores y del personal laboral dependiente de los mismos, según el criterio de representación paritaria entre ambos sectores. No obstante, los estatutos podrán establecer que la Asamblea General de la cofradía esté formada por todos los miembros de la misma, sin perjuicio de la representación paritaria en la emisión del voto.

3.– Los socios colaboradores podrán asistir a la Asamblea General de acuerdo con lo establecido en los estatutos.

*Artículo 18.–* Competencias de la Asamblea General.

Corresponde a la Asamblea General:

a) Aprobar los estatutos de la cofradías.

b) Elegir de entre sus miembros a la Junta Directiva, al Presidente, al Vicepresidente y a los miembros suplentes. Nombrarlos y cesarlos en el ejercicio de sus funciones.

c) Aprobar los presupuestos de ingresos y gastos y fijar los criterios de contratación de personal.

d) Aprobar las cuotas o derramas.

e) Aprobar el balance y los estados financieros o cuentas de explotación del ejercicio presupuestario.

f) Aprobar los actos de disposición de los bienes inmuebles y los acuerdos de colaboración entre sí.

g) Aprobar la disolución, modificación y fusión de las cofradías de pescadores y de su ámbito territorial.

h) Aprobar la participación de las cofradías, por sí o a través de sus federaciones, en otras empresas u orga-

ropako Erkidegoko eta nazioarteko beste erakunde batzuetan izan behar duten partaidetza onestea.

i) Gainerako artezkaritza organoen jarduna kontrolatzea.

j) Kofradiaren memoriak, egitasmoak eta jarduteko programak onestea.

k) Estatutuek, lege honek edo bera garatzeko xedapenek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

*19. atala.–* Zuzendaritza batzordea.

1.– Kofradien zuzendaritzarako, administraziorako eta kudeaketarako organoa da.

2.– Lehendakariak, lehendakariordeak eta biltzar orokorreko zenbait kidek osatuko dute zuzendaritza batzordea. Azken horiek biltzar orokorrak berak aukeratuko ditu, biltzarrean aurreikusitako ordezkaritza parekidearen irizpide berberei jarraituz.

*20. atala.–* Zuzendaritza batzordearen eskumenak.

Zuzendaritza batzordeari eginkizun hauek dagozkio:

a) Biltzar orokorraren erabakiak bete eta betearaztea.

b) Kofradiaren jarduerak zuzendu eta koordinatzea.

c) Kofradiaren memoria, egitasmoak eta programak, balantzea eta emaitzen kontua, eta sarrera eta gastuen aurrekontua biltzar orokorrari aurkeztea, berak onets ditzan.

d) Kuotak eta derramak proposatzea.

e) Kofradiaren menpeko lan-kontratupeko langileak kontratatu eta kaleratzea, eta langileen antolamendu funtzionala finkatzea.

f) Xedeak betetzeko, batzordeak eta ordezkaritzak izendatzea.

g) Ondasun higikorrak eta zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeari buruzko erabakiak hartzea.

h) Kofradietako kideen alta, baja edo bateraezintasunei buruzko erabakiak hartzea.

i) Kofradiaren sarrera eta gastuen aldez aurretiko ikuskapen eta kontrola egitea, baita balantzearena eta finantza orri edo ustiapen kontuarena ere.

j) Estatutuek edo antolamendu juridikoak esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

*21. atala.–* Lehendakariaren eskumenak.

Lehendakariari eginkizun hauek dagozkio:

a) Zuzendaritza batzordearen jarduna zuzentzea.

b) Kofradia ordezkatzea, bai administrazioetan eta epai-organoetan, bai beste edozein erakunde edo enpresa publiko zein pribatutan -direla Estatukoak, direla Europako Erkidegokoak edo nazioartekoak-, eta auzi eta arazo orokorretarako ahalorde orokorrak emateko ahalmena ematea.

nizaciones territoriales, estatales, comunitarias e internacionales.

i) Controlar la actuación de los demás órganos rectores.

j) Aprobar la memoria, los proyectos y programas de actuación de la cofradía.

k) Cuantas funciones le sean atribuidas por los respectivos estatutos o por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo.

*Artículo 19.–* La Junta Directiva.

1.– Es el órgano de dirección, administración y gestión de las cofradías.

2.– La Junta Directiva estará constituida por el Presidente, el Vicepresidente y un número de miembros de la Asamblea General elegidos por ésta, siguiendo los mismos criterios de representación paritaria previstos en la misma.

*Artículo 20.–* Competencias de la Junta Directiva.

Corresponde a la Junta Directiva:

a) El cumplimiento y ejecución de los acuerdos de la Asamblea General.

b) La dirección y coordinación de las actividades de la cofradía.

c) Presentar ante la Asamblea General, para su aprobación, la memoria, los proyectos y programas de la cofradía, el balance y cuenta de resultados y el presupuesto de ingresos y gastos.

d) Proponer las cuotas y derramas.

e) La contratación o despido del personal laboral dependiente de la cofradía y el establecimiento de su organización funcional.

f) Nombrar comisiones y delegaciones para el cumplimiento de sus fines.

g) Adoptar acuerdos sobre la adquisición y disposición de bienes muebles y servicios.

h) Acordar el alta, la baja o la incompatibilidad de los miembros de las cofradías.

i) Ejercer la inspección y el control previo de los ingresos y gastos de la cofradía y el balance y los estados financieros o cuenta de explotación.

j) Cuantas funciones le sean atribuidas por los respectivos estatutos o por el ordenamiento jurídico.

*Artículo 21.–* Competencias del Presidente.

Corresponde al Presidente:

a) Dirigir la acción de la Junta Directiva.

b) Representar a la cofradía ante las Administraciones y órganos jurisdiccionales y ante cualquier organismo o empresa pública o privada, estatal, comunitaria o internacional, y autorizar el otorgamiento de poderes generales de representación en pleitos y asuntos generales.

c) Artezkaritza organoen bilkuretarako deia egitea, bilera-buru jardutea, bilkurak eten eta bukatutzat ematea eta organo horien deliberazioak gidatzea.

d) Kofradien izenean akordio eta hitzarmenak formalizatzea eta kofradiek enpresa publiko zein pribatuetan edo Estatuko, Europako Erkidegoko edo nazioarteko erakundeetan izan behar duten partaidetza formalizatzea.

e) Ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo erabiltzeko kontratuak formalizatzea.

f) Gastuetarako baimena eta ordainketa-aginduak ematea.

g) Langileen kontratazioa formalizatzea eta langileen arau-urratze arinak zehatzea.

h) Botazioetan suertatzen diren hainbanakoak bere botoaz ebaztea.

i) Aktak sinatu eta kautotzea.

j) Estatutuek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

*22. atala.–* Lehendakariordearen eskumenak.

1.– Lehendakariak kargua utz badeza, edo hil badadi, edo absente edo gaixorik egon badadi, lehendakariordeak lehendakariaren eginkizunak beteko ditu.

2.– Aipaturiko egoera horietariko edozein gerta badadi, lehendakariodeak, hiru hilabetetik zortzi hilabetera bitarteko epearen barruan, biltzar orokorrerako deia egingo du, lehendakari berria aukeratzeko. Lehendakari berria lehengoaren sektore beretik aukeratuko da, organo horrek agintaldia urtebeteko epearen barruan bukatu ezik.

3.– Lehendakariordea atal honen lehenengo lerroaldean aurreikusitako egoera batean egon badadi, zuzendaritza batzordeko kide batek ordeztuko du, sektore profesional berekoa izanik, botazioan boto gehien lortu dituenak, hain zuzen ere.

4.– Lehendakariak edo lehendakariordeak kargua utziz gero, ezin aurkez daitezke beste hauteskunde batera, harik eta kargua utzi duteneko agintaldia agortu arte.

## III. ATALBURUA
## HAUTESKUNDE PROZEDURA

*23. atala.–* Hautesleak.

Hautesle izan ahal izateko, eskakizun hauek bete behar dira:

a) Kofradiako kide izatea, eta horrela agertzea behin betiko hauteskunde zerrendan.

b) Organo eskudunaren erabaki edo epaiaren bidez eskubide hau erabiltzeko gauzaezturik edo ezgaiturik ez egotea.

c) Convocar, presidir, suspender y levantar las sesiones de los órganos rectores y dirigir sus deliberaciones.

d) Formalizar en nombre de las cofradías los acuerdos y convenios y la participación de las mismas en las empresas públicas o privadas, o en organismos estatales, comunitarios o internacionales.

e) Formalizar los contratos de adquisición o disposición de bienes y servicios.

f) La autorización de los gastos y la ordenación de los pagos.

g) Formalizar la contratación del personal y sancionar sus conductas infractoras leves.

h) Dirimir con su voto los empates en las votaciones.

i) Autorizar las actas con su firma.

j) Cuantas funciones le sean atribuidas por sus respectivos estatutos.

*Artículo 22.–* Competencias del Vicepresidente.

1.– El Vicepresidente realizará las funciones de Presidente por dimisión, fallecimiento, ausencia o enfermedad de éste.

2.– Si sucediera cualquiera de estas circunstancias, el Vicepresidente, en un plazo mínimo de tres meses y máximo de ocho meses, procederá a la convocatoria de una Asamblea General para la elección de un nuevo Presidente, que será elegido del mismo sector al que pertenecía el anterior, salvo que este órgano finalizara su mandato en el período de un año.

3.– Cuando se dieran en el Vicepresidente los supuestos previstos en el apartado primero de este artículo, será sustituido por el miembro de la Junta Directiva que haya obtenido mayor número de votos y pertenezca al mismo sector profesional.

4.– El Presidente o Vicepresidente que dimita no podrá presentarse a una nueva elección hasta que no finalice el mandato en que se produjo su dimisión.

## CAPÍTULO III
## PROCEDIMIENTO ELECTORAL

*Artículo 23.–* Electores.

Podrán ser electores las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Ser miembro de la cofradía y constar como tal en la lista electoral definitiva.

b) No estar incapacitado o inhabilitado por resolución o sentencia de órgano competente para el ejercicio de este derecho.

*24. atala.–* Hauta daitezkeenak.

1.– Harako kofradiaren biltzar orokorreko kidea izateko, arrantzaleen kofradiako kidea izateaz gain, ordezkaritza kargu hori betetzeko hautatua edo izendatua izan behar da, 17.2 atalean ezarritakoa aplikatzekoa izan ezik.

2.– Zuzendaritza batzordeko kidea izateko, lehenengo lerroaldean adierazitakoaz gain, hauek dira bete beharreko eskakizunak: hauteskundeak egitean delako kideak kofradiako kide legez bi urte edo gehiagoko antzinatasuna bazuela egiaztatzea; hauteskunde garaian 65 urte baino gehiago ez izatea, eta ordezkaritza kargu bat betetzeko gauzaezturik edo ezgaiturik ez egotea. Hala ere, bi urteko antzinatasuna ez da eskatuko kofradia berri bat eratzen denean.

3.– Zuzendaritza batzordeko kideren batek 65 urte betetzen baditu batzordekidea den bitartean, agintaldia agortu arte jarraitu ahal izango du.

*25. atala.–* Hauteskunde batzordea.

1.– Kofradiaren biltzar orokorra hautatzeko, hauteskunde batzordea eratuko da. Hauteskunde batzordeak hauteskundeetarako plana eta egutegia gertatuko ditu.

2.– Kofradiako lehendakaria arituko da hauteskunde batzordeko lehendakari. Hauteskunde batzordea, gainera, zuzendaritza batzordeak eta kofradiako idazkariak osatuko dute.

*26. atala.–* Behin-behineko zerrendak.

1.– Artezkaritza organoen legezko agintaldia amaitu aurreko hilabetean, hauteskunde batzordeko lehendakariak kofradiako kideen behin-behineko zerrendak jarriko ditu iragarki oholean, eta zortzi eguneko epea emango da zerrenda horien aurkako erreklamazio eta errekurtsoak aurkezteko.

2.– Hauteskunde batzordeak ebatziko ditu erreklamazio edo errekurtsoak, aurkeztu eta zortzi eguneko epearen barruan.

*27. atala.–* Behin betiko zerrendak.

1.– Legez ezarritako epea erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu gabe igaroz gero, edota erreklamazio edo errekurtsoak ebatzitakoan, berehala argitaratuko dira behin betiko zerrendak, hamabost eguneko epea jarriko da hautagaiak aurkezteko eta hautagaiak biltzar orokorreko kide aukeratzeko eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira.

2.– Behin betiko zerrenden aurka, zortzi eguneko epearen barruan errekurtsoa jarri ahal izango zaio arrantza arloan eskuduna den Sailari. Errekurtsoa ebazteko epea beste horrenbestekoa izango da.

*28. atala.–* Biltzar orokorrerako hautagaiak aurkeztu eta hautatzeko modua.

1.– Ezarritako epearen barruan, ontzi-jabeek eta arrantza-ontziren batean diharduten lan-kontratupeko langileek hautagaiak aurkeztu ahal izango dituzte -zei-

*Artículo 24.–* Elegibles.

1.– Para ser miembro de la Asamblea General será necesario pertenecer a la cofradía de pescadores y ser elegido o proclamado para desempeñar este cargo representativo, salvo lo establecido en el artículo 17.2.

2.– Para formar parte de la Junta Directiva se requiere, además de lo señalado en el apartado primero, acreditar una antigüedad de dos años anteriores a la elección como miembro de la cofradía, no superar los 65 años en el momento de la misma, y no estar incapacitado o inhabilitado para el ejercicio de cargo representativo. No obstante, el requisito de la antigüedad de dos años no será exigible en la constitución de una nueva cofradía.

3.– Los miembros de la Junta Directiva que cumplieran la edad de 65 años durante el ejercicio de su mandato podrán continuar hasta la finalización del mismo.

*Artículo 25.–* La Comisión Electoral.

1.– Para la elección de la Asamblea General de la cofradía se constituirá una Comisión Electoral que elaborará el plan y el calendario electoral.

2.– La Comisión Electoral estará presidida por el Presidente de la cofradía, formando además parte de la misma la Junta Directiva y el Secretario de la misma.

*Artículo 26.–* Listas provisionales.

1.– En el plazo del mes anterior a la finalización del mandato legal de los órganos rectores, el Presidente de la Comisión expondrá en el tablón de anuncios las listas provisionales de los miembros de la cofradía y se concederá un plazo de ocho días para poder formular reclamaciones y recursos contra las mismas.

2.– Las reclamaciones o recursos serán resueltos por la Comisión Electoral en el plazo de ocho días desde la interposición de los mismos.

*Artículo 27.–* Listas definitivas.

1.– Transcurrido el período legal sin haberse formulado reclamaciones o recursos o habiendo sido resueltos éstos, se procederá de inmediato a la publicación de las listas definitivas, se establecerá un plazo de quince días para la presentación de candidatos y se fijará la hora, fecha y lugar para la elección de éstos como miembros de la Asamblea General.

2.– Contra la listas definitivas se podrá interponer recurso en el plazo de ocho días ante el Departamento competente en materia de pesca, que deberá resolver en el mismo período de tiempo.

*Artículo 28.–* Presentación y elección de candidatos a la Asamblea General

1.– En el período de tiempo establecido al efecto, los armadores y el personal laboral que preste sus servicios en una embarcación pesquera podrán presentar

nek bere sektore profesionalaren baitan-, biltzar orokorrean ontzi-jabe edo langileen ordezkari izan daitezen.

2.– Hauteskundeak lanbide-sektoreka egingo dira eta boto gehien lortzen dituzten hautagaiak izendatuko dira.

3.– Aurkeztutako hautagaien kopurua eta sektore profesional bakoitzean aukeratu beharreko ordezkarien kopurua bat badatoz, ez da beharrezkoa izango hauteskunderik egitea, eta hauteskunde batzordeak biltzar orokorreko kide izendatuko ditu hautagaiak.

*29. atala.–* Hauteskunde batzordearen eginkizunak.

1.– Hauteskunde batzordearen ardura izango da botazioaren zuzentasuna jagotea, ordena zaintzea, zenbaketa egitea eta hauteskundeen legezkotasuna jagotea. Batzordeko burua arituko da hauteskundeetako buru.

2.– Hauteskunde batzordeak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, eta, emaitzok argitaratzen direnetik, zortzi eguneko epea emango du erreklamazio eta errekurtsoak aurkezteko. Erreklamazio edo errekurtso horiek beste horrenbesteko epearen barruan ebatzi beharko ditu batzordeak.

3.– Batzordearen erabakiaren aurka, arrantza arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako Sailari errekurtsoa jarri ahal izango zaio zortzi eguneko epearen barruan.

*30. atala.–* Emaitzen argitalpena eta biltzar orokorrerako deia.

1.– Ezarritako epea erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu gabe igaroz gero, edota erreklamazio edo errekurtsoak ebatzitakoan, biltzar orokorra osatuko duten kideen behin betiko zerrenda argitaratuko da, eta biltzarrerako deia egingo da, biltzarkide hautetsiak karguaz jabetu daitezen, eta gainerako artezkaritza organoak hauta daitezen.

2.– Behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo 15 egunen barruan egingo da aipaturiko deialdi hori.

*31. atala.–* Biltzar orokorraren eraketa.

1.– Kofradiako jarduneko lehendakaria arituko da biltzar orokorreko buru, kofradiako idazkaria lagun duelarik. Idazkariak botazioen emaitzak irakurriko ditu eta biltzarkideak karguaz jabetzen direnean egingo den akta sinatuko du.

2.– Biltzarrean boto eskubidea erabili ahal izateko, eta gainerako artezkaritza organoetan hautetsi-karguak bete ahal izateko, ezinbestekoa da biltzarkideak karguaz jabetzea.

*32. atala.–* Zuzendaritza batzordearen, lehendakariaren eta lehendakariordearen hautapena.

1.– Karguaz jabetutakoan, biltzar orokorreko edozein kidek aurkez diezaioke biltzarreko jarduneko lehendakariari kofradiako zuzendaritza batzorderako, le-

candidatos, dentro del sector profesional al que pertenecen, para que representen a los mismos en la Asamblea General.

2.– La elección de éstos se realizará por sectores profesionales y serán proclamados los candidatos que obtengan mayor número de votos.

3.– Si el número de los candidatos presentados coincidiera con el número de miembros a elegir por cada uno de los sectores profesionales no será necesario proceder a la elección, siendo proclamados por la Comisión Electoral miembros de la Asamblea General.

*Artículo 29.–* Funciones de la Comisión Electoral.

1.– La Comisión Electoral será la responsable de vigilar la regularidad de la votación, mantener el orden, realizar el escrutinio y velar por la legalidad del sufragio, siendo su Presidente el encargado de presidir la votación.

2.– La Comisión Electoral procederá a publicar los resultados provisionales y concederá un plazo de ocho días desde la publicación de los mismos para presentar reclamaciones y recursos, debiendo resolver en el mismo período de tiempo.

3.– Contra el acuerdo de la Comisión cabrá recurso ante el Departamento competente en materia de pesca del Gobierno Vasco en el plazo de ocho días.

*Artículo 30.–* Publicación de resultados y convocatoria de la Asamblea General.

1.– Transcurrido el plazo sin haberse formulado reclamaciones o recursos o habiendo sido resueltos los mismos, se procederá a la publicación de la lista definitiva de los miembros que van a formar parte de la Asamblea General y a la convocatoria de la misma para la toma de posesión de los miembros electos y para la elección de los restantes órganos rectores.

2.– La convocatoria tendrá lugar en el plazo de los 15 días siguientes a la publicación de la lista definitiva.

*Artículo 31.–* Constitución de la Asamblea General.

1.– La Asamblea General estará presidida por el Presidente en funciones de la cofradía asistido del Secretario de la misma, que procederá a la lectura del resultado de las votaciones y a la firma del acta de toma de posesión de sus miembros.

2.– La toma de posesión de sus miembros será requisito indispensable para poder ejercer el derecho a voto en la Asamblea y ocupar cargos electos en los restantes órganos rectores.

*Artículo 32.–* Elección de la Junta Directiva, del Presidente y del Vicepresidente.

1.– Finalizada la toma de posesión, cualquier miembro de la Asamblea General podrá presentar ante el Presidente en funciones de la misma una lista de candida-

hendakaritzarako eta lehendakariordetzarako hautagaien zerrenda bat; zerrendarekin batera, gutxienez %20 biltzarkideren sinadurak aurkeztu behar dira. Aurrekoa gorabehera, estatutuetan hautagaiak aurkezteko beste edozein sistema ezarri ahal izango da.

2.– Botazio zuzen eta sekretua egingo da, eta aldeko boto gehien lortzen dituzten hautagaiak aukeratuko dira. Hainbanakorik gertatuz gero, estatutuetan xedatzen dena izango da aginduzko. Aurrekoaren ezean, adinez zaharrena den kidea aukeratuko da. Ekitaldi berean, zuzendaritza batzorderako ordezkoak aukeratuko dira.

3.– Zuzendaritza batzordean ordezkaritza parekidea mantenduko da, eta lehendakaria ontzi-jabeen sektorekoa bada, lehendakariordea lan-kontratupeko langileen sektorekoa izango da, edo alderantziz. Zuzendaritza batzordeko gainerako kideekin era berean jokatuko da.

*33. atala.–* Eginkizunen luzapena.

Hauteskunde prozesuan zehar artezkaritza organoak eta lehendakariordea jardunean egongo dira, eta bakar-bakarrik tramite edo kudeaketa soileko lanak egin ditzakete. Artezkaritza organo berriak eta lehendakariorde berria karguaz jabetzearekin batera amaituko da jardunekoen agintaldia. Karguaz jabetu, berriz, biltzar orkorrerako deia egin eta urtebeteko epearen barruan jabetu beharko dute.

*34. atala.–* Lehendakaria edo lehendakariordea kargutik kentzeko modua.

1.– Lehendakaria edo lehendakariordea kargutik kentzeko, biltzar orokorra deitu behar da, eta, horretarako, beharrezkoa da biltzarkideen herenek edo gehiagok eskabidea egitea.

2.– Biltzarrean eskatzaileen arrazoiak azalduko dira, eta hitza emango zaie lehendakariari eta lehendakariordeari beren eskubideak defendatzeko arrazoiak azal ditzaten.

3.– Alderdien esku-hartzeak amaitutakoan, banakako botazio zuzen eta sekretua egingo da, eta ukiturikoak kargutik kenduko dira emandako botoen gehiengoz hala erabaki baledi.

## IV. ATALBURUA
## KOFRADIEN FEDERAZIOA

### 1. SEKZIOA
### ERAKETA, IZAERA ETA EGINKIZUNAK

*35. atala.–* Eraketa.

Euskal Herriko arrantzaleen kofradiek, beren xedeak betetzeko, kofradien federazioa era dezakete Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta, halaber, Euskal Herriko Kofradien Federazioa osa dezakete.

tos a la Junta Directiva, a la Presidencia y a la Vicepresidencia de la cofradía, debiendo venir con la firma de, al menos, el 20% de los miembros de la Asamblea. No obstante lo anterior, los estatutos podrán establecer cualquier otro sistema de presentación de candidatos.

2.– Se procederá a la votación directa y secreta de los candidatos presentados y serán elegidos los que obtengan el mayor número de votos a favor. En caso de empate se estará a lo dispuesto en los respectivos estatutos. En defecto de lo anterior, resultará elegido el miembro de mayor edad. En el mismo acto se procederá a la elección de los suplentes a la Junta Directiva.

3.– Se mantendrá la representación paritaria en la Junta Directiva, y si el Presidente pertenece al sector armador el Vicepresidente será elegido de entre el sector del personal laboral dependiente, o viceversa, actuándose de la misma forma con el resto de los miembros de la Junta Directiva.

*Artículo 33.–* Prórroga de funciones.

Durante el proceso electoral los órganos rectores y el Vicepresidente estarán en funciones, pudiendo solamente realizar actos de mero trámite o gestión, y concluirán sus mandatos con la toma de posesión de los nuevos órganos rectores y del Vicepresidente, que deberá realizarse en un plazo no superior a un año desde la convocatoria de la Asamblea General.

*Artículo 34.–* Cese o separación del cargo de Presidente o Vicepresidente.

1.– El cese o separación del cargo del Presidente o Vicepresidente requerirá la convocatoria de una Asamblea General que vendrá solicitada, al menos, por un tercio de los miembros de la misma.

2.– En la Asamblea se expondrán las razones de los solicitantes y se concederá la palabra al Presidente o Vicepresidente para que expongan las suyas en defensa de sus derechos.

3.– Finalizadas las intervenciones de las partes, se realizará una votación individual, directa y secreta, procediéndose al cese o separación del cargo si se adoptara esta resolución por mayoría de los votos emitidos.

## CAPÍTULO IV
## FEDERACIÓN DE COFRADÍAS

### SECCIÓN 1.ª
### CONSTITUCIÓN, NATURALEZA Y FUNCIONES

*Artículo 35.–* Constitución.

Las cofradías de pescadores del País Vasco podrán constituirse, para el desempeño de sus fines, en federación de cofradías en cada uno de los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa, pudiendo a su vez integrarse en una Federación de Cofradías del País Vasco.

*36. atala.–* Izaera.

Kofradien federazioek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta erabateko autonomia dute beren baliabideak kudeatzeko. Federazioen egintzak Zuzenbide publiko ala pribatuaren menpean egongo dira, egintzen ezaugarrien arabera.

*37. atala.–* Estatutuak.

Federazioen estatutuek, gutxienez, lege honetan jasotzen ez diren eta ondoko alderdiokin zerikusia duten inguruabarrak arautuko dituzte: estatutuen onespen eta aldaketa, egoitza, federazioko organoen antolamendu eta funtzionamendua, hauteskundeetarako arauak, kideen eskubide eta betebeharrak, kideen ordezpena, erabakiak hartzeko modua, desegitea eta ondarearen erabilera, eta federazioak behar bezala funtzionatzeko premiazkotzat hartzen den guztia.

*38. atala.–* Eginkizunak.

Kofradien eginkizunen kaltetan jo gabe, eta eginkizun horiek federazioei kofradien ordezkari diren aldetik esleitzen zaizkiela, hauek dira federazioen eginkizunak:

a) Arrantzaleen kofradien interes orokorrak defendatu eta ordezkatzea.

b) Kofradien jarduna koordinatzea, beharrezko zerbitzuak hobeto egiteko; bestetik, aseguru edo finantza erakundeekiko akordioak bultzatzea, baliabide ekonomikoak edo finantza tresnak ahalik eta ondoen erabil daitezen.

c) Kofradien artean sortzen diren gatazketan bitartekari aritzea.

d) Arrantzan, arrantza merkaturatzeko bideetan eta arrantza sektorean eragina eduki dezaketen arau edo manu guztiei buruzko informazioa ematea kofradiei.

e) Kofradia berriei buruzko txostenak egitea, direlako kofradia horiek eratu baino lehen.

f) Estatutuek esleitzen dizkieten gainerako eginkizun guztiak.

2. SEKZIOA
FEDERAZIOEN OSAERA ETA FEDERAZIOETAN PARTE HARTZEKO MODUA

*39. atala.–* Osaera.

1.– Lurraldean lurraldeko kofradiak izan daitezke federazioko kideak, kasuan kasuko kofradiaren biltzar orokorrak aldeko erabakia hartuz gero.

2.– Euskal Herriko Kofradien Federazioa Bizkaiko eta Gipuzkoako federazioek osatuko dute, bi federazio horien biltzar orokorrek aldeko erabakia hartuz gero.

*40. atala.–* Federazioetan parte hartzeko modua.

1.– Arrantzaleen kofradiek lurraldeko kofradien federazioan parte hartuko dute, zeinek bere lurraldekoan, hain zuzen ere. Horretarako, proportzionaltasunaren irizpidea begiratuko da, kofradia bakoitzaren kide ko-

*Artículo 36.–* Naturaleza.

Las federaciones de cofradías gozan de personalidad jurídica y plena capacidad de obrar y disponen de total autonomía en la gestión de sus recursos propios. Sus actos estarán sometidos al derecho privado o público de acuerdo con sus características.

*Artículo 37.–* Estatutos.

Los estatutos de las federaciones regularán, al menos, todos aquellos aspectos que, no estando recogidos en esta norma, hacen referencia a su aprobación y modificación, al domicilio, organización y funcionamiento de sus órganos, normas electorales, derechos y obligaciones de sus miembros y sustitución de los mismos, adopción de acuerdos, disolución y destino de su patrimonio y cuanto se estime necesario para el correcto funcionamiento de la misma.

*Artículo 38.–* Funciones.

Sin perjuicio de las funciones que ostentan las cofradías y se atribuyen a las federaciones como cauce de representación de las mismas, ejercen, además, las siguientes:

a) Defender y representar los intereses generales que afecten a las cofradías de pescadores.

b) Coordinar las actuaciones de las mismas para una mejor prestación de los servicios necesarios y promover acuerdos con instituciones aseguradoras o financieras para una óptima utilización de los recursos económicos o de los instrumentos financieros.

c) Mediar en aquellos conflictos que surjan entre diversas cofradías.

d) Informar a las cofradías de todas las normas o preceptos que puedan afectar a la pesca o a su comercialización y al sector pesquero.

e) Emitir informe previo sobre la constitución de nuevas cofradías.

f) Y cuantas funciones vengan determinadas en sus propios estatutos.

SECCIÓN 2.ª
COMPOSICIÓN Y PARTICIPACIÓN EN LAS FEDERACIONES

*Artículo 39.–* Composición.

1.– Podrán ser miembros de la federación las cofradías ubicadas en su respectivo ámbito territorial, previo acuerdo favorable de su Asamblea General.

2.– La Federación de Cofradías del País Vasco estará integrada por las Federaciones de Bizkaia y Gipuzkoa, previo acuerdo de sus Asambleas Generales.

*Artículo 40.–* Participación en la federación.

1.– Las cofradías de pescadores participarán en la federación de cofradías de su territorio, de acuerdo con el criterio de proporcionalidad en función del número de miembros de cada cofradía, sin que ninguna de ellas

puruaren arabera. Edonola ere, kofradia batek federazioan duen partaidetza ezin izan daiteke %47tik gorakoa.

2.– Kofradia bakoitzaren partaidetza-portzentaiari dagokion boto haztatuaren arabera hartuko dira erabakiak, aurreko lerroaldean ezarritakoa kontutan hartuta.

3.– Lurraldeetako federazioek Euskal Herriko Kofradien Federazioan izango duten partaidetza parekidea izango da.

3. SEKZIOA
ANTOLAMENDUA

*41. atala.–* Artezkaritza organoak.

Federazioen artezkaritza organoak biltzar orokorra, zuzendaritza batzordea eta lehendakaria dira.

*42. atala.–* Biltzar orokorra.

1.– Federazioa ordezkatzeko eta zuzendaritza batzordea eta lehendakaria kontrolatzeko organo nagusia da.

2.– Federazioko lehendakariak eta lehendakariordeak, kofradietako lehendakariek eta lehendakariordeek eta kofradia bakoitzeko zenbait ordezkarik osatuko dute biltzar orokorra. Ordezkari horiek zuzendaritza batzordeek aukeratuko dituzte parekidetasunaren irizpidea errespetatuz eta kofradia bakoitzak federazioan duen partaidetza-portzentaiaren arabera.

3.– Kofradietako idazkariak biltzar orokorrera joan daitezke; bertan hitza izango dute, baina botorik ez.

*43. atala.–* Zuzendaritza batzordea.

1.– Federazioaren zuzendaritzarako, administraziorako eta kudeaketarako organoa da.

2.– Federazioko lehendakariak eta lehendakariordeak eta federazioko kofradietako lehendakari eta lehendakariordeek osatuko dute zuzendaritza batzordea.

3.– Kofradietako idazkariak ere zuzendaritza batzordeen bileretara joan daitezke, kofradiako lehendakariak deituz gero. Idazkariok hitza izango dute, baina botorik ez.

*44. atala.–* Lehendakaria eta lehendakariordea.

1.– Biltzar orokorrak biltzarkideen artetik hautatuko ditu federazioko lehendakaria eta lehendakariordea, lau urteko eperako hautatu ere.

2.– Hautatutako lehendakaria ontzi-jabea bada, lehendakariordea lan-kontratupeko langileen sektorekoa izango da, edo alderantziz.

3.– Hainbanakorik gertatuz gero, estatutuetan xedatzen dena izango da aginduzko. Aurrekoaren ezean, adinez zaharrena den kidea aukeratuko da.

*45. atala.–* Hautatuak izateko eskakizunak.

Lehendakari eta lehendakariorde izateko hautagaiek bete behar dituzten baldintzak hauek dira:

pueda superar el 47% del porcentaje de participación total en la federación.

2.– Los acuerdos se adoptarán según el voto ponderado que ostente cada una de ellas, teniendo en cuenta lo establecido en el párrafo anterior.

3.– La participación de las federaciones territoriales en una Federación de Cofradías del País Vasco será paritaria.

SECCIÓN 3.ª
ORGANIZACIÓN

*Artículo 41.–* Órganos rectores.

Son órganos rectores de las federaciones la Asamblea General, la Junta Directiva y el Presidente.

*Artículo 42.–* La Asamblea General.

1.– Es el órgano superior de representación de la federación y de control de la Junta Directiva y del Presidente.

2.– Estará constituida por el Presidente y Vicepresidente de la federación, por los Presidentes y Vicepresidentes de las cofradías y por un número de representantes de cada una de éstas elegidos de forma paritaria por sus Juntas Directivas, según el porcentaje de participación que les corresponda en la federación.

3.– Los Secretarios de las cofradías podrán asistir a la Asamblea General con voz pero sin voto.

*Artículo 43.–* La Junta Directiva.

1.– Es el órgano de dirección, administración y gestión de la federación.

2.– Estará constituida por el Presidente y Vicepresidente de la federación y por los Presidentes y Vicepresidentes de las cofradías que la integran.

3.– Los Secretarios de las cofradías podrán asistir a las Juntas Directivas cuando sean convocados por su Presidente. Tendrán voz pero no voto.

*Artículo 44.–* El Presidente y Vicepresidente.

1.– El Presidente y Vicepresidente de la federación serán elegidos por un período de cuatro años por la Asamblea General de entre los miembros de la misma.

2.– Si el Presidente elegido fuera armador, el Vicepresidente será elegido de entre los representantes del personal laboral dependiente, o viceversa.

3.– En caso de empate, se estará a lo dispuesto en los respectivos estatutos. En defecto de lo anterior, resultará elegido el miembro de mayor edad.

*Artículo 45.–* Requisitos de elegibilidad.

Los candidatos a Presidente y Vicepresidente deberán reunir las siguientes condiciones:

a) Federazioko biltzar orokorreko kide izatea.

b) Hauteskundea egiten denean adinez nagusiak izatea eta 65 urtetik gorakoak ez izatea.

c) Lurraldeko arrantzaleen kofradiaren bateko kide legez bi urte edo gehiagoko antzinatasuna egiaztatzea.

d) Ordezkaritza kargu bat betetzeko gauzaezturik edo ezgaiturik ez egotea.

e) Hoben oso astunengatiko zehapenik jaso ez izana ezein kofradia edo federaziotan.

4. SEKZIOA
HAUTESKUNDE PROZEDURA

*46. atala.–* Lehendakariaren eta lehendakariordearen hautapena.

1.– Lehendakaria eta lehendakariordea hautatzeko, hauteskunde batzordea eratuko da, eta batzorde horrek hauteskundeetarako plana eta egutegia gertatuko ditu.

2.– Federazioko jarduneko lehendakaria arituko da hauteskunde batzordeko lehendakari. Hauteskunde batzordea, gainera, lehendakariordeak, zuzendaritza batzordeak eta idazkariak osatuko dute.

3.– Lehendakariaren agintaldia agortu edo lehendakaria kargutik kendu eta hilabeteko epearen barruan, hauteskunde batzordeak hautatzaileen zerrenda argitaratuko du, lehendakaritza eta lehendakariordetzarako hautagaiak aurkezteko epea ezarriko du eta hauteskundeetarako eguna, ordua eta tokia zehaztuko ditu. Agintaldia agortu eta sei hilabeteko epearen barruan egingo dira hauteskundeak.

*47. atala.–* Hautagaiak proposatzeko modua.

Arrantzaleen kofradietako zuzendaritza batzordeek edota edozein kofradiatako biltzar orokorreko %20 kidek proposa ditzakete kofradien federazioetako lehendakari eta lehendakariorde izateko hautagaiak, ezarritako hauteskunde epearen barruan betiere.

*48. atala.–* Hautagaien aldarrikapena eta biltzar orokorrerako deia.

1.– Hauteskunde garaia igarotakoan, hauteskunde batzordeko lehendakariak jendaurrean emango du aurkezturiko hautagaien berri, eta biltzar orokorrerako deia egingo du. Biltzar horretarako aztergai bakarra lehendakari eta lehendakariordearen hautapena izango da.

2.– Lehenengo hauteskunde saioan, kideen botoen gehiengoa eta partaidetza-portzentaiaren gehiengoa (azkeneko hau kofradiek federazioan duten boto haztatuaren arabera) lortzen duten hautagaiak aukeratuko dira lehendakari eta lehendakariorde izateko. Lehendabizi lehendakaria aukeratuko da.

3.– Bigarren saioan, partaidetza-portzentaiaren gehiengoa lortzen duten hautagaiak aukeratuko dira, kofradiek federazioan duten boto haztatuaren arabera.

a) Ser miembros de la Asamblea General de la federación.

b) Ser mayores de edad y no superar los 65 años en el momento de la elección.

c) Acreditar una antigüedad de, al menos, dos años en una cofradía de pescadores del territorio.

d) No estar incapacitado o inhabilitado para el ejercicio de cargo representativo.

e) No haber sido sancionado por falta muy grave por una cofradía o federación.

SECCIÓN 4.ª
PROCEDIMIENTO ELECTORAL

*Artículo 46.–* Elección de Presidente y Vicepresidente.

1.– Para la elección de Presidente y Vicepresidente se creará una Comisión Electoral, que elaborará el plan y el calendario electoral.

2.– Esta Comisión Electoral será presidida por el Presidente en funciones de la federación, formando además parte de la misma el Vicepresidente, la Junta Directiva y el Secretario.

3.– En el período de un mes desde la finalización del mandato de Presidente o de su cese o separación del cargo, la Comisión Electoral publicará la lista de electores, establecerá el plazo de presentación de candidatos a la Presidencia y Vicepresidencia y señalará el día, hora y lugar para las votaciones, que se celebrarán en un plazo de seis meses desde la finalización del mandato.

*Artículo 47.–* Proposición de candidatos.

Las Juntas Directivas de las cofradías de pescadores, o el 20% de los miembros de la Asamblea General de éstas, podrán proponer candidatos a Presidente y Vicepresidente de las federaciones de cofradías en el período electoral establecido.

*Artículo 48.–* Proclamación de candidatos y convocatoria de la Asamblea General.

1.– Transcurrido el período electoral, el Presidente de la Comisión Electoral hará públicos los candidatos presentados y convocará a los miembros de la misma a una Asamblea General, con el único orden del día de la elección del Presidente y Vicepresidente.

2.– Serán elegidos en primera vuelta Presidente, y posteriormente Vicepresidente, los candidatos que obtengan la mayoría de votos de los miembros y del porcentaje de participación según el voto ponderado que ostenten las cofradías en la federación.

3.– En segunda vuelta serán elegidos los candidatos que obtengan la mayoría del porcentaje de participación según el voto ponderado.

4.– Hauteskunde batzordearen erabakien aurka errekurtsoa jar dakioke, lehenengo auzialdian, batzordeari berari, eta, bigarren auzialdian, arrantza arloan eskuduna den Sailari. Auzialdi bietan, errekurtsoak aurkeztu eta ebazteko epeak zortzi egunekoak izango dira.

*49. atala.–* Lehendakaria edo lehendakariordea kargutik kentzeko modua.

Lehendakaria edo lehendakariordea kargutik kentzeko, 34. atalean ezarritako prozedura beteko da. Erabakia, edonola ere, boto haztatuaren araberako partaidetza-portzentaiaren gehiengoaz hartuko da.

V. ATALBURUA
KOFRADIA ETA FEDERAZIOETAKO LANGILE LAGUNTZAILEAK

*50. atala.–* Lan-kontratupeko langileak.

Arrantzaleen kofradiek eta federazioek, beren xedeak betetzeko, lan-kontratupeko langileak kontratatu ahal izango dituzte, beharrizan eta aurrekontuen arabera.

*51. atala.–* Idazkaria.

Idazkariaren eginkizuna izango da kofradia edo federazioaren langile, zerbitzu eta bulegoak zuzendu eta koordinatzea.

*52. atala.–* Idazkariaren eginkizunak.

Kofradia edo federazioko lehendakariak emandako agindu eta jarraibideen arabera jardungo du idazkariak bere eginkizunetan, eta, gainera, beste egiteko hauek izango ditu:

a) Artezkaritza organoen bileretan hartutako erabakien aktak egitea eta zaintzea. Bileretan hitza izango du, baina botorik ez.

b) Artezkaritza organoei indarreko arauen gaineko aholkuak ematea, eta izan litezkeen arau-hausteez ohartaraztea.

c) Artezkaritza organoek baimendutako kobrantzak eta ordainketak.

d) Kofradia edo federazioaren memoria, jarduteko egitasmo eta programak eta sarrera eta gastuen urteko aurrekontua egitea, zuzendaritza batzordeak ezarritako irizpideen arabera betiere.

e) Herri administrazio edo agintariek eskaturik, edota interesatuek eskaera arrazoitua eginik, luzatu beharreko agiri eta ziurtagiriak luzatzea, lehendakariaren oniritziarekin.

f) Kontabilitate liburuak behar bezala edukitzea.

g) Estatutuek eta aplikatzekoak diren xedapen arauemaileek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

4.– Los acuerdos de la Comisión Electoral serán recurribles en primera instancia ante la propia Comisión, y en segunda instancia ante el Departamento competente en materia de pesca. El plazo común para formular y resolver los recursos en ambas instancias será de ocho días.

*Articulo 49.–* Cese o separación del cargo de Presidente o Vicepresidente.

El cese o separación del cargo de Presidente o Vicepresidente seguirá el mismo procedimiento que se establece en el artículo 34. La resolución se adoptará por mayoría del porcentaje de participación según el voto ponderado.

CAPÍTULO V
PERSONAL AUXILIAR DE COFRADÍAS Y FEDERACIONES

*Artículo 50.–* Personal laboral.

Las cofradías de pescadores y las federaciones, de acuerdo con sus necesidades y presupuesto, podrán contratar personal laboral propio para el cumplimiento de sus fines.

*Artículo 51.–* Secretario.

El ejercicio de las funciones de dirección y coordinación del personal, servicios y dependencias de la cofradía o federación será realizado por un Secretario.

*Artículo 52.–* Funciones del Secretario.

El Secretario, que desempeñará sus funciones de acuerdo con las órdenes y directrices del Presidente de la cofradía o federación, se responsabilizará además de los siguientes cometidos:

a) Levantamiento y custodia de las actas de lo acordado en las reuniones de los órganos rectores, donde podrá actuar con voz pero sin voto.

b) Asesoramiento a los órganos rectores de las normas vigentes, advirtiéndoles de los incumplimientos.

c) Los cobros y pagos autorizados por los órganos rectores.

d) Redactar la memoria, los proyectos y programas de actuación de la cofradía o federación y el presupuesto anual de ingresos y gastos, de acuerdo con los criterios fijados por la Junta Directiva.

e) La expedición, con el visto bueno del Presidente, de los documentos y certificados requeridos por las Administraciones o autoridades públicas o a petición motivada de los interesados.

f) La correcta tenencia de los libros de contabilidad.

g) Y cualquier otra función que le sea atribuida por los respectivos estatutos y por las disposiciones normativas aplicables.

*53. atala.–* Langileak kontratatu eta kaleratzeko modua.

Federazioak lan-kontratupeko langileak kontratatu eta kaleratzeko, federazioko zuzendaritza batzordeak onespena eta baimena eman behar du.

VI. ATALBURUA
ARAU OROKORRAK

*54. atala.–* Eraketarako quoruma.

1.– Biltzar orokorra eta zuzendaritza batzordea baliozkotasunez eratu ahal izateko, lehenengo deialdian, beharrezkoa da kideen legezko gehiengo absolutua bilkurara azaltzea. Bigarren deialdian, ordea, bertaratutako kideen kopurua edozein delarik ere eratu ahal izango dira.

2.– Federazioen kasuan, botorako eskubidea duen proportziozko partaidetza-portzentaiaren gehiengo absolutua ordezkatu behar du kideen legezko gehiengo absolutuak. Bigarren deialdian, nahikoa izango da proportziozko partaidetza-portzentaiaren legezko gehiengo absolutua.

3.– Deialdietan aztergaien zerrenda zehaztu behar da.

*55. atala.–* Deialdiak.

1.– Biltzar orokorrerako deia, ohiko nahiz ezohiko batzarrerakoa, beranduen jota, biltzeko aurreikusitako data baino 15 egun lehenago egin behar da, eta deia egitean biltzarrerako lekua, eguna eta ordua adierazi behar dira, hala lehenengo deialdirako nola bigarrenerako. Dei hori jendaurrean jarriko da, kofradia eta federazioaren iragarki oholean.

2.– Estatutuetan zehaztuko da zuzendaritza batzordearen bilerarako deia, ohiko nahiz ezohiko bilerarakoa, egiteko era.

*56. atala.–* Kofradia edo federazioaren biltzar orokor edo zuzendaritza batzorderako deia egiteko ekimena.

1.– Artezkaritza organoei esleitutako ahalmenen kaltetan jo gabe, kofradiako lehendakariak biltzar orokorra edo zuzendaritza batzordea biltzeko deia egin behar du, baldin eta kofradiako kideen herenek kofradiako idazkariarengana azaldu eta, idatziz, hala egiteko egiteko eskatzen badiote. Aztergaien zerrendan eskaeraren arrazoia adierazi behar da.

Eskabidea egin eta hilabeteko epearen barruan, lehendakariak biltzar orokorra edo zuzendaritza batzordea biltzeko deia egin ez badeza, arrantza arloan eskuduna den Sailari eskatu ahal izango zaio deia egiteko. Sail horrek, orduan, deia egitea bidezkoa den erabakiko du, eta kofradiako kide bat aukeratuko du, bilkurako buru jardun dezan.

2.– Federazioen biltzar eta zuzendaritza batzordeen kasuan, kideen herenek, gutxienez, proportzio berbera

*Artículo 53.–* Contratación y despido.

La contratación o despido del personal laboral de la federación será aprobada y autorizada por la Junta Directiva de la misma.

CAPÍTULO VI
NORMAS GENERALES

*Artículo 54.–* Quórum de constitución.

1.– La Asamblea General y la Junta Directiva quedarán constituidas válidamente en primera convocatoria cuando estén presentes la mayoría absoluta legal de los miembros, o en segunda convocatoria cualquiera que sea el número de éstos.

2.– En el supuesto de las federaciones, la mayoría absoluta legal de los miembros deberá disponer de la mayoría absoluta del porcentaje de participación proporcional con derecho a voto. En segunda convocatoria sólo será necesaria la mayoría absoluta legal del porcentaje de participación proporcional.

3.– Las convocatorias deberán establecer los asuntos del orden del día.

*Artículo 55.–* Convocatorias.

1.– Las convocatorias de las Asambleas Generales, ordinarias y/o extraordinarias, deberán realizarse con al menos 15 días de antelación a la fecha prevista, señalando el lugar, día y hora de la misma en primera y segunda convocatoria, y se hará pública en el tablón de anuncios de la cofradía y federación.

2.– Las convocatorias a las Juntas Directivas, ordinarias y/o extraordinarias, se harán de la forma que se determine en los estatutos.

*Artículo 56.–* Iniciativa para la convocatoria de la Asamblea General o Junta Directiva de la cofradía o federación.

1.– Sin perjuicio de las facultades atribuidas a cada uno de los órganos rectores, el Presidente de la cofradía deberá convocar la Asamblea General o la Junta Directiva cuando lo soliciten por escrito y en comparecencia ante el Secretario de la cofradía un tercio de los miembros de las mismas, debiendo figurar en el orden del día el motivo de la solicitud.

Si el Presidente no convocara la Asamblea General o la Junta Directiva en el plazo de un mes desde la solicitud, podrán solicitar la convocatoria de las mismas al Departamento competente en materia de pesca, que decidirá la procedencia de convocarlas y designará a un miembro de la cofradía para presidir las mismas.

2.– Cuando se trate de las Asambleas y Juntas Directivas de las federaciones, el tercio de los miembros

ordezkatu behar dute botorako eskubidea duen proportziozko partaidetza-portzentaian.

*57. atala.–* Erabakiak hartzeko modua.

1.– Artezkaritza organoen erabakiak, hartu ere, emandako botoen gehiengoaz hartuko dira, edo, federazioen kasuan, boto horiek organoan ordezkatzen duten partaidetza-portzentaiaren gehiengoaz, legez edo estatutuetan bestelako portzentaia eta gehiengoak exigitu ezik.

2.– Ezin da aztergaien zerrendan ez dagoen gairik aztertu, eta ezin da halako ezein gairi buruzko erabakirik hartu, artezkaritza organoaren kide guztiak bilkuran egon eta gaia presazkotzat jo ezik organoko kideen eta, federazioen kasuan, partaidetza-portzentaiaren gehiengoaren aldeko botoaz.

*58. atala.–* Artezkaritza organoen bilkurak eta erabakien aurka egiteko modua.

1.– Artezkaritza organoen bilkuretan, lehendakaria edo lehendakariordea arituko dira bilkuretako buru, edo, horien ezean, adinez zaharrena den kidea.

2.– Idazkariak akta egingo du, eta bertan ondoko zertzelada hauek jasoko dira: bilkuraren eguna, lekua eta ordua, bertaratu direnen izen-abizenak, aztertutako gaien laburpena, hartutako erabakiak eta egokitzat hartzen diren gainerako kontu guztiak.

3.– Biltzar orokorren aktak artezkaritza organoko lehendakariaren oniritzia jasoko du. Akta horrek, gainera, kofradiaren bulegoetan egon behar du, kofradiako kide guztien esku.

4.– Hartutako erabakien aurka, interesatuek, beste instantzia batera jo aurretik, erreklamazioa azaldu ahal izango diote erabakia hartu duen organoari, erabakia hartu eta 15 eguneko epearen barruan.

*59. atala.–* Zehapenak ezartzeko modua.

1.– Arrantzaleen kofradiek eta federazioek zehapenak ezar diezazkiekete kofradia edo federazioetako kideei, estatutuetan zehaztutako arau-urratzeen ondorioz.

2.– Zehatzeko ahalgoa erabili ahal izateko, zehapen prozedura ireki behar da, eta, prozedura horren barruan, interesatuari entzun behar zaio.

*60. atala.–* Zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

Zehapenak ezartzeko organo eskuduna kofradia edo federazioko lehendakaria da hoben arinen kasuan, eta zuzendaritza batzordeak hoben astun edo oso astunen kasuan.

*61. atala.–* Baliabideak.

Arrantzaleen kofradiek eta kofradien federazioek, beren xedeak betetzeko, baliabide hauek edukiko dituzte:

a) Herri administrazioek ezarritako dirulaguntzak.

deberán representar, al menos, la misma proporción en el porcentaje de participación proporcional con derecho a voto.

*Artículo 57.–* Adopción de acuerdos.

1.– Los acuerdos de los órganos rectores se adoptarán por mayoría de los votos emitidos o del porcentaje de participación que representen en el órgano, en el caso de las federaciones, salvo los que legal o estatutariamente exijan porcentajes y mayorías diferentes.

2.– No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure en el orden del día, salvo que estén presentes todos los miembros del órgano rector y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría de los miembros del mismo y, además, del porcentaje de participación en el supuesto de las federaciones.

*Artículo 58.–* Reunión e impugnación de los acuerdos de los órganos rectores.

1.– Los órganos rectores estarán presididos por el Presidente o Vicepresidente del mismo, y en su defecto por el miembro de mayor edad.

2.– El Secretario levantará acta en la que se reflejará el día, lugar y hora, nombre y apellidos de los asistentes, un resumen de los asuntos debatidos, los acuerdos adoptados y cuantas circunstancias se estimen oportunas.

3.– El acta de las Asambleas Generales vendrá autorizada por el Presidente del órgano rector, debiendo estar a disposición de los miembros en las dependencias de la cofradía.

4.– Contra los acuerdos adoptados se podrá interponer por los interesados reclamación previa ante el órgano que los acordó en el plazo de 15 días desde la toma del acuerdo.

*Artículo 59.–* Imposición de sanciones.

1.– Las cofradías de pescadores y las federaciones podrán imponer sanciones a sus miembros en virtud de las infracciones establecidas en sus estatutos.

2.– El ejercicio de la potestad sancionadora requerirá la apertura de un procedimiento sancionador con audiencia del interesado.

*Artículo 60.–* Órgano competente para imponer sanciones.

El órgano competente para imponer sanciones es el Presidente de la cofradía o federación en faltas leves, y las Juntas Directivas en faltas graves o muy graves.

*Artículo 61.–* Recursos.

Las cofradías de pescadores y sus federaciones contarán con los siguientes recursos para el cumplimiento de sus fines.

a) Las subvenciones que puedan establecerse por las Administraciones públicas.

b) Biltzar orokorrek edo osoko bilkurek erabakitako kuota eta derramak.

c) Beren ondarearen errentak eta produktuak.

d) Egokitzen zaizkien dohaintza, legatu, laguntza eta gainerako baliabideak.

e) Arrantzan eta arrantzako produktuak merkaturatzeko prozesuan egindako zerbitzu orokorren ondoriozko sarrerak.

f) Lege edo estatutuko xedapenen baten ondorioz eskuratutako beste edozein baliabide.

*62. atala.–* Aurrekontuak.

Biltzar orokorrek, berariazko deialdian, aurrekontu ekitaldiaren itxiera eta igarotzen ari den urteko sarrera eta gastuen aurrekontua onetsiko dituzte urtearen lehenengo hiruhilekoan. Horretarako, memoria eta legezko xedapenen arabera exigi daitezkeen gainerako kontabilitate agiriak erantsiko dituzte.

*63. atala.–* Aurrekontuen onespenaren jakinarazpena.

Korporazio hauetako lehendakariak, bi hilabeteko eparen barruan, ziurtagiri bat bidaliko dio arrantza arloan eskuduna den Sailari. Bertan egiaztatuko da ezen biltzar orokorrak onespena eman diela aurrekontu itxierari, memoriari, eta aribideko urteko sarrera eta gastuen aurrekontuari.

*64. atala.–* Kontuen kanpo auditoretza.

Arrantzaleen kofradiek eta federazioek kontuen kanpo auditoretza onartu behar dute, arrantza arloan eskuduna den Sailak hala egiteko eskatuz gero. Betebehar hori, edonola ere, Euskal Herriko aurrekontu orokorren edo Europako Erkidegoaren fondoen konturako dirulaguntzen onuradunak direnean egokitzen zaizkien betebeharren kaltetan jo gabe ulertuko da.

*65. atala.–* Dirulaguntzen edo transferentzien galera.

Aurreko betebeharra urratuz gero, edo laguntza publikoak ematen dituzten organoek egin beharreko egiaztapen lanak eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin beharreko kontrol lanak oztopatu, ukatu edo eragotziz gero, arrantzaleen kofradiek eta kofradien federazioek ezin izango dute inolako dirulaguntzarik edo transferentziarik jaso Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorren kontura. Horrek ez du baztertzen, gainera, laguntza eta subentzioei buruzko legeriaren araberako beste zehapenik ezartzeko aukera.

*66. atala.–* Kide izateari uztearen ondorioak.

Kofradia edo kofradien federazio bateko edozein kidek kide izateari utz badiezaio, bazkide gisa jarritako eskubide ekonomikoak edo ondarezkoak galduko ditu.

b) Las cuotas y derramas que sean acordadas por los Plenos o Asambleas Generales.

c) Las rentas y productos de su patrimonio.

d) Las donaciones, legados, ayudas y demás recursos que puedan corresponderles.

e) Los ingresos por prestación de servicios generales en la actividad pesquera y comercializadora.

f) Cualesquiera otros recursos obtenidos en virtud de disposición legal o estatutaria.

*Artículo 62.–* Presupuestos.

Las Asambleas Generales, en convocatoria realizada al efecto, aprobarán en el primer trimestre del año el cierre del ejercicio presupuestario y el presupuesto de ingresos y gastos del año en curso, debiendo aportar con el mismo la memoria y demás documentos contables que sean exigibles según las disposiciones legales.

*Artículo 63.–* Comunicación de la aprobación de los presupuestos.

El Presidente de estas corporaciones, en el plazo de dos meses, remitirá al Departamento competente en materia de pesca un certificado de la aprobación por parte de la Asamblea General del cierre presupuestario y de la memoria y presupuesto de ingresos y gastos del año en curso.

*Artículo 64.–* Auditoría externa de cuentas.

Las cofradías de pescadores y sus federaciones, a requerimiento del Departamento competente en materia de pesca, deberán someterse a una auditoría externa de cuentas. Dicha obligación se entenderá sin perjuicio de las obligaciones que puedan, en su caso, corresponderles cuando sean beneficiarias de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales del País Vasco o de fondos comunitarios.

*Artículo 65.–* Pérdida de subvenciones o transferencias.

Las cofradías de pescadores y sus federaciones que incumplan la anterior obligación o impidan mediante la negativa u obstrucción las actuaciones de comprobación a efectuar por los órganos concedentes de las ayudas públicas y, en su caso, las de control que corresponden a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, no podrán recibir subvenciones o transferencias con cargo a los presupuestos generales de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de las demás sanciones que correspondan conforme a la legislación reguladora de las ayudas y subvenciones.

*Artículo 66.–* Consecuencia de la pérdida de la condición de miembro.

La pérdida de la condición de miembro de una cofradía o federación de cofradías supondrá la pérdida de los derechos económicos o patrimoniales que como socio se hubieran aportado.

VII. ATALBURUA
ERREGISTROA

*67. atala.–* Sorkuntza eta edukia.

1.– Arrantza arloko eskumena duen Sailak erregistro bat ezarriko du, eta bertan hauek guztiak inskribatuko dira: kofradien eta federazioen estatutuak; artezkaritza organoen eraketa eta titulartasunarekin eta kofradien aldaketa, bat-egite, desegite edo ezabatzearekin zerikusia duten erabakiak, eta, interes orokorrak defendatzeko, haien artean edo beste erakunde batzuekin formalizatzen dituzten akordio edo hitzarmenak.

2.– Kofradien eta federazioen estatutuak, aldaketak eta akordioak edo hitzarmenak erregistroan inskribatu ahal izateko, beharrezkoa da Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko organo eskudunak aldez aurretik berrets ditzan.

3.– Erregistroan inskribatzea bete beharreko eskakizuna da aurreko lerroaldean aipaturikoek existitzeko modua eta baliozkotasun juridikoa izan dezaten.

*68. atala.–* Antolamendua.

Erregistroa honela antolatuko da: batetik, liburu bat edukiko da, orrialdeak zenbakiturik eta zigilaturik izango dituena, eta, bestetik, artxibo bat eratuko da, inskribatzen diren agiri guztiak gordetzeko. Horrez gain, prozedura informatikoak erabili ahal izango dira, baina bermatu behar da, betiere, idatzitakoa ezin ezaba daitekeela.

*69. atala.–* Txosten juridikoak eta txosten tekniko-ekonomikoak.

1.– Kofradia bat edo kofradien federazio bat sortu, aldatu, batu edo desegiteko akordioak eta haien hitzarmenak txosten juridiko eta tekniko-ekonomikoez hornitu behar dira, onetsitako akordio edo hitzarmena baliozkoa, beharrezkoa eta bideragarria dela frogatzeko. Txosten horietan kontu hauek aztertu behar dira: bai deialdia, bai esku hartzen duten sektoreen ordezkaritza, bai botazioak eta hartzen diren erabakiak legezkoak ote diren, akordio eta hitzarmenak bete beharreko eginkizunetarako premiazkoak eta bideragarriak ote diren, eta legez edo araudi bidez ezartzen diren gainerako eskakizunak.

2.– Arrantza arloan eskuduna den Sailak, txosten horiek aztertutakoan, akordioa edo hitzarmena berretsi eta erregistroan inskribatuko du, edo, bestela, ukatu egingo du.

*70. atala.–* Ziurtagiriak.

Erregistroko arduradunak ziurtagiriak luzatuko ditu epai-agintariek edo Administrazioko agintariek horrela eskatuz gero, edota norbanako batek eskaera arrazoitua eginez gero.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Arrantza arloan eskuduna den Sailak, 14. atalean xedatutakoaren kaltetan jo gabe, batzorde

CAPÍTULO VII
REGISTRO

*Artículo 67.–* Creación y contenido.

1.– El Departamento competente en materia de pesca establecerá un registro en el que deberán inscribirse los estatutos de las cofradías y federaciones, los acuerdos que afecten a la composición y titularidad de los órganos rectores, la modificación, fusión, disolución y supresión de las mismas y los acuerdos o convenios que se puedan formalizar entre sí y con otras organizaciones para la defensa de los intereses generales.

2.– Los estatutos de las cofradías y federaciones, sus modificaciones y sus acuerdos o convenios deberán ser previamente ratificados por el órgano competente del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca para poder ser inscritos registralmente.

3.– La inscripción registral será requisito necesario para su existencia y validez jurídica.

*Artículo 68.–* Organización.

El registro se organiza mediante la tenencia de un libro con páginas numeradas y selladas y un archivo donde se depositarán todos los documentos que hayan causado inscripción. Así mismo podrán utilizarse procedimientos informáticos, debiendo quedar asegurado, en todo caso, el carácter indeleble de lo escrito.

*Artículo 69.–* Informes jurídicos y técnico-económicos.

1.– Los acuerdos de creación, modificación, fusión o disolución de una cofradía o federación de cofradías y sus convenios deberán ir provistos de los informes jurídicos y técnico-económicos que determinen la validez del acuerdo o convenio aprobado y la necesidad y viabilidad del mismo. Estos informes deberán versar sobre la legalidad de la convocatoria, de la representación de los sectores intervinientes y de las votaciones y acuerdos adoptados, y sobre la necesidad y viabilidad para el cumplimiento de las funciones que tienen encomendadas y demás requisitos que legal o reglamentariamente se establezcan.

2.– El Departamento competente en materia de pesca, una vez examinados estos informes, procederá a la ratificación e inscripción registral del acuerdo o convenio o a su denegación.

*Artículo 70.–* Certificaciones.

El responsable del registro expedirá certificados a requerimiento de las autoridades judiciales y administrativas y a solicitud particular, previa petición motivada.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* El Departamento competente en materia de pesca, sin perjuicio de lo dispuesto en el artícu-

kudeatzaileak eratu ahal izango ditu lege-urratzeak gertatzen direnean, edota kofradia zein federazioen funtzionamendu egokian eragin oker nabaria duten zirkunstantziak gertatzen direnean.

*Bigarrena.–* Salbuespenez, kofradia edo federazioko lehendakari edo lehendakariorde karguak betetzeko hautagairik ez badago, erabateko elbarritasun egoeran edo jubilaturik dauden pertsonak aukeratu ahal izango dira kargu horiek betetzeko, baldin eta jardunaldi profesionalaren azken bost urteetan kofradia edo federazio bateko kideak izan badira, eta lege honetan ezartzen diren gainerako eskakizunak betetzen badituzte. Xedapen hau kofradia eta federazioen estatutuetan jaso behar da.

*Hirugarrena.–* Arrantzaleen kofradiek eta kofradien federazioek neurri egokiak hartuko dituzte beren jardunean euskararen erabilera normalizatzeko, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen ondoriozko betebeharrak betetzeko xedeaz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.–* Arrantza arloan eskuduna den Sailak bere arioz inskribatuko ditu Kofradien eta Federazioen Erregistroan egun diren kofradia eta federazioak, baita haien gobernu eta administraziorako organoak ere, kofradia edo federazio bakoitzak bere estatutuak egokitu eta bi hilabeteko epearen barruan.

*Bigarrena.–* Lege hau argitaratu arte kofradietako bazkide izan diren lan-kontratupeko langileek kofradietako kide izaten jarraituko dute jubilatu arte.

*Hirugarrena.–* Arrantzaleen kofradiei eta kofradien federazioei atxikitako funtzionarioek beren araubide eta egoera juridiko-administratiboari eutsiko diote.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Kofradien estatutuak lege honen arabera egokitu behar dira urtebeteko epearen barruan, eta, gero, arrantza arloan eskuduna den Sailera igorriko dira, berrespena jaso eta eraginkortasun juridikoa lortzeko.

Aipaturiko epearen barruan estatutuak lege honen arabera egokitzen ez dituzten kofradiak, edota estatutu horiek -berrespena jaso dezaten- arrantza arloan eskuduna den Sailera igortzen ez dituztenak, deseginik geratuko dira ondore guztietarako eta likidazio epean sartuko dira. Administrazioak bere arioz idatziko du erregistroan halako kofradien desegitea.

Kofradiaren titulartasuneko ondarearekin estatutuetan xedatutakoa egingo da.

*Bigarrena.–* Lege honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, martxoaren 11ko 670/1978 Errege Dekretuan eta bera garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

lo 14, podrá crear comisiones gestoras cuando se produjeran incumplimientos legales o se dieran circunstancias que alterasen gravemente el normal funcionamiento de las cofradías o federaciones.

*Segunda.–* Excepcionalmente, ante la ausencia de miembros para ocupar los cargos de Presidente o Vicepresidente de una cofradía o federación, podrán ser elegidos para ocupar los mismos las personas que, habiendo sido miembros de una cofradía o federación durante los últimos cinco años de su actividad profesional y cumpliendo los demás requisitos establecidos en esta ley, se encuentren en una situación de invalidez absoluta o jubilación. Esta disposición deberá ser recogida en los estatutos de las cofradías y federaciones.

*Tercera.–* Las cofradías de pescadores y sus federaciones adoptarán las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera en el desarrollo de sus actividades a fin de dar cumplimiento a las obligaciones derivadas de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* El Departamento competente en materia de pesca inscribirá de oficio en el Registro de Cofradías y federaciones, en el plazo de dos meses desde la adaptación de sus estatutos, las actualmente existentes y sus órganos de gobierno y administración.

*Segunda.–* El personal laboral perteneciente a las cofradías que hasta la publicación de esta ley formaba parte como socio de las mismas continuará siendo miembro de las cofradías hasta su jubilación.

*Tercera.–* El personal funcionario adscrito a las cofradías de pescadores y sus federaciones mantendrá su régimen y situación jurídico-administrativa.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Los estatutos de las cofradías deberán adaptarse a la presente ley en un plazo de un año y serán remitidos al Departamento competente en materia de pesca para su ratificación a fin de alcanzar eficacia jurídica.

Las cofradías que en el citado plazo no hubieran adaptado sus estatutos a la presente ley o no hubieran remitido los mismos al Departamento competente en materia de pesca para su ratificación quedarán disueltas de pleno derecho y entrarán en período de liquidación, haciéndose de oficio la anotación en el registro.

El patrimonio del que fuera titular la cofradía tendrá el destino que determinen sus estatutos.

*Segunda.–* En lo no previsto en esta ley, se estará a lo dispuesto en el Real Decreto 670/1978, de 11 de marzo, y disposiciones de desarrollo.

*Hirugarrena.–* Arrantza arloko eskumena duen sailburuari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

*Laugarrena.–* Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogei egunen buruan jarriko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

*Tercera.–* Se faculta al Consejero del Departamento competente en materia de pesca para dictar las normas de desarrollo que fueren precisas.

*Cuarta.–* La presente ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-3172

AGINDUA, 1998ko ekainaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1998-99 ikasturtean unibertsitateko ikasketa-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzeko dena.

Unibertsitatearen Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 54.3.b) puntuak dioenez, Autonomi Erkidegoak finkatuko ditu titulu ofizialak lortzeko diren ikasketei dagozkien ikasketa-tasak, beti ere Unibertsitate Kontseiluak ezarritako mugen barruan. Gainontzeko ikasketetarako, berriz, Gizarte Kontseiluak finkatuko ditu tasak.

Geroago, Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legeak prezio publikotzat hartu zituen bai ikasketa-tasak bai Unibertsitatearen Erreformarako Legeak aurrikusten dituen bestelako sariak. Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 145.1a) azpiatalak dioenari jarraiki, prezio publikoen zenbatekoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aginduz finkatuko eta aldatuko da, lege berezi batek aurkakoa ez badio behintzat.

Familia ugariak babesteko ekainaren 19ko 25/1971 Legeak, berriz, honakoa ezartzen du: familia ugarietako partaideek ikasketa- eta administrazio-sari eta tasen exentzioak eta murrizketak izango dituztela, hezkuntza maila eta ziklo guztietan eta, bereziki, unibertsitate-hezkuntzan.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-3172

ORDEN de 22 de junio de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se fijan los precios a satisfacer por la prestación de servicios académicos universitarios en el año académico 1998-99.

El artículo 54.3.b) de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, establece que las tasas académicas por estudios conducentes a títulos oficiales serán fijadas por la Comunidad Autónoma dentro de los límites que establezca el Consejo de Universidades. Para los restantes estudios las fijará el Consejo Social.

Con posterioridad, la Ley 3/1990 de 31 de mayo, de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha otorgado la consideración de precios públicos a las tasas académicas y demás derechos de la Universidad previstos en la Ley de Reforma Universitaria. Y en virtud de lo dispuesto en el artículo 145.1.a) de la citada Ley de Tasas y Precios Públicos, la fijación o modificación de la cuantía de los precios públicos se realizará, salvo que una ley especial disponga lo contrario, por orden del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Por su parte, la Ley 25/1971, de 19 de junio, de protección a las Familias Numerosas, establece que las personas integrantes de familias numerosas gozarán de una serie de beneficios de exención o reducción de derechos y tasas académicos y administrativos en los distintos niveles y ciclos educativos y, en particular, en la educación universitaria.